



Usurbilgo Udala

**ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO PUNTAPAX EGUNEKO ZENTROAREN
ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.
PROZEDURA IREKIA**

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratu honen objektua da adineko pertsonentzako Usurbilgo Puntapax eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakida modalitatean, kalitatezkoa eta egonkorra izango den enplegua sustatuz, hizkuntza berdintasunean eta gizonen zein emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, helburu horretarako ezarritako klausula sozialen bidez. Objektu hau preskripzio teknikoen agirian, agiri honetan eta kontratuaren esleipendunaren eskaintzan zehaztutako baldintzetan garatuko da.

CPV kodea: 85312100-0 eguneko zentroa.

Kontratazio hau zerbitzu emakida-kontratu administratibo gisa gauzatuko da.

Kontratua esleipendunaren arrisku eta benturan gauzatuko da, bere gain hartuko baititu kontratua gauzatzeak eta zentroa ustiatzeak izan ditzakeen arrisku ekonomikoak, artapen eta ustiapen kostuak.

Zerbitzuaren eskumena

12/2008ko legeak abenduaren 5ekoak, gizarte zerbitzuei buruzkoak, Eguneko zentroa gizarte zerbitzuen euskal sistemako prestazio eta zerbitzuen Katalogoan jasotzen du, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu gisa eta ezartzen du Foru Aldundien gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea. 185/2015 dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, hau dio: Foru Aldundiek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta zerbitzuen katalogoaren bigarren mailako arreta-zerbitzuak emateko eta dekretu berak Eguneko zentroa Foru Aldundiaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren barruan sailkatu du.

2014ko otsailaren 20an Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Hitzarmena sinatu zuten, Udal Eguneko zentroak plazak hitzartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren subrogazio klausula

Kontratuaren indarraldian zentroa sartu daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza sailaren menpe den eta Kabia izena duen erakunde autonomoan edo hori ordezkatzeko duen erakunde edo



Usurbilgo Udala

administrazioan. Integrazio hori gauzatzen bada, kontratu-erlazio hau erakunde horretara eramango da, hortik aurrera Kabia Erakunde Autonomoak (edo hori ordezkutzen duen erakunde edo administrazioak) hartuko duelarik Usurbilgo Udalaren lekua eta Kabia (edo hori ordezkutzen duen erakunde edo administrazioak) izango delarik aurrerantzean Usurbilgo adinekoen eguneko zentroari dagokionez Administrazio Kontratatzailea, automatikoki.

2.- ERABILERA LAGATZEA

Usurbilgo Udalak erabilera horretarako Kalezar auzoa 15ean duen eraikinaren erabilera lagako dio esleipendunari, aipatutako zerbitzuak kudea ditzan, eta lagapen horren indarraldia emakidaren iraunaldi bera izango da. Esleipendunak, Usurbilgo Udalak onartzen duen erabilpen erregimenarekin eta mantenimendu planarekin bat etorritik erabiliko du higiezin hori.

Emakidadunak egoera onean mantendu behar ditu erabiltzeko lagatzen zaizkion higiezinak, aurrez Usurbilgo Udalak baimenduta egindako egokitzapenak, halakorik izanez gero, eta dagokion ekipamendua. Gainera, guztia Udalarik itzultzeko bidea erraztu beharko du emakidaren epea amaitzen denean. Kanon bat ordaindu beharrik izango ez badu ere, emakidaduna egingo da ondasunei eragindako kalte-galeren erantzule, eta bera arduratuko da ondasun horien erabilpen orokorrean edo zerbitzuan eragindako kalteez, baita ere ematen zaizkion ondasunen mantenu arruntaz.

Emakida hau bultzatu dituen eraikinen erabilera-lagapena, edozein kasutan ere, jabetza eskubidea alde batera utzirik eta hirugarrenen eskubideak baldintzatu gabe emandakotzat ulertuko da. Zentro horietako kudeaketa emateko beharrezkoak diren ondasun higikorren lagapena, inbentario gisa identifikatu eta zerrendatuta dago ezaugarri teknikoaren agirian.

3.- HAUTAKETA ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Zerbitzu emakida kontratua adjudikatzeko prozedura irekia izango da. Edozein enpresarik aurkeztu ahal izango bere eskaintza, negoziaketa modu oro bazterturik geratuz, SPKLTB-ren 157. artikuluaarekin bat.

4.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Prestazioa emateko epea guztira izango da HIRU URTEKOA, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita, eta berriaz eta elkarren artean adostuta luzatu ahal izango da urte bateko beste bi epez, baina iraupena guztira ez da izango BOST URTE baino luzeagoa.

Luzapenak kontratazio organuak burutuko ditu gizarte langilearen, kontuhartzailearen eta idazkari edo kontratazio teknikariaren aldeko txostenaren baitan.

Kontratua sinatzen duten bi aldeetako batek ez badu kontratua luzatu nahi, besteari horrela jakinarazi beharko dio, hasierako epea edo luzapenaren epea amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.



Usurbilgo Udala

Kontratua bukatu baino hiru hilabeteko lehenago, Usurbilgo Udalak ikuskatzaile tekniko bat izendatuko du, higiezinaren, instalazioen eta ekipamenduaren kontserbazio egoera egiazta ditzan. Eta ikuskatzaile honek, guztia erabilpen-egoera onean mantentzeko beharrezkoak diren konponketen edo horniduren berri emango du.

Kontratua bukatzean, obra, instalazio, zerbitzu, altzari eta ekipamendu guztiak Usurbilgo Udalari itzuli beharko zaizkio, kontserbazio egoerarik onenean eta inolako zamarik gabe.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratua gauzatzeko lizitazio prezioa honakoa izango da eta prezio hori ezin izango da gainditu, inolaz ere, aurkezten diren eskaintzetan. Lizitatzaiileek hobetu ahal izango dituzte beren eskaintzetan:

- 50 €/egun eta plazako astelehenetik ostiralera (BEZ kanpo, %4 BEZ-a 2 euro, guztira BEZ barne 52 euro).
- 52 €/ egun eta plazako asteburu eta jaiegunetan (BEZ kanpo, %4 BEZ-a 2,08 euro, guztira BEZ barne 54,08 euro).

Eskaintzen duen prezioa, eguneko eta erabiltzaile-plaza bakoitzeko izango da.

Zifra horietan sartutzat joko dira zerbitzuari lotutako era guztietako gastuak eta baita aplikagarria diren era guztietako zergak ere. Nolanahi ere, lizitatzaiilea edozein zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, berariaz adierazi beharko du hori bere eskaintzan, eta agirien bidez egiaztatu. Edozei motako hornikuntzak, hala nola, ura, gasa, elektrizitatea etab. prezioaren barruan dagoela ulertzen da eta esleipendunaren kontura izango da.

Lizitazioaren balio zenbatetsia, gehieneko okupazioa (18 astegunetan eta 6 asteburutan) eta urteko egutegia (gutxi gora behera 251 lanegun eta 110 jaiegun zerbitzua emanez, 4 egun itxita) kontuan izanda honako hau da:

Urteko aurrekontuaren estimazioa 260.220 eurotako da (BEZ-ik gabe), %4 BEZ-a 10.408,80 euro), guztira BEZ barne 270.628,80 euro. Kontratuaren hasierako iraupenerako aurreikuspena (3 urte), BEZ-ik gabe 780.660 euro dira, BEZ-a % 4-a 31.226,40 euro eta hortaz guztira BEZ barne 811.886,40 euro estimatzen dira.

Luzapen guztiak barne, guztira estimaturiko kontratuaren bolumen ekonomikoa 1.301.100 euro da (BEZ-ik gabe), eta %4a BEZ (52.044 euro) barne guztira 1.353.144 euro.

Edozelan ere, ezin da zehatz kuantifikatu kontratuaren prezioa, izan ere, plegu honetan adierazitako hitzetan, sortzen diren beharren arabera denez, ez da bermatzen zerbitzua ematearen kopuru zehatzik.

Zentzu honetan, lizitatzaiileei zera jakinarazten zaie: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Usurbilgo eguneko zentroan hitzarturiko plazen kopurua aldatzea aurreikusi du,



Usurbilgo Udala

jaiegunetako plazetan 6 plaza gehituz, eta hori 2017ko urriaren 31ean onartzea eta 2017ko azaroaren 1etik aurrera ondorioak izatea. Dena den, oraindik ebatzi gabe dago eta hortaz udalak ezin ditu une honetan plaza ziurtzat jo.

Prezio horretan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak.

6.- FINANTZAKETA

Nahiko aurrekontu kreditu dago, kontratua betetzetik Udalarentzat sortzen diren obligazioei erantzuteko. Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

7.- ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa hileroko faktura bidez egingo da, behin faktura aurkeztu eta zerbitzuko arduradunak faktura egiaztatu ondoren. Fakturan ordu kopurua zehaztu beharko da eta elektronikoa izango da. Faktura onartu eta gero, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikuluan legez aurreikusitako epeak izango dira gehienekoak.

Dena den, Udalak baldintza orrietan zehazten den zerbitzu osoa jasotzen ez badu, Usurbilgo Udalak ez du konpromisorik hartzen zehaztutako kopuruak oso-osorik ordaintzeko.

8.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da prezio berrikuspenik izango kontratuaren iraupen osoan zehar.

9.- BERMEAK

6 HILABETEKO epea ezarri da, kontratua amaitzen den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako. Berme epean esleipendunaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

10.- KONTRATUA BURUTZEA

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak.

Kontratistak, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoaren orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.



Usurbilgo Udala

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitatearen erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondorioz eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei. Kontratatutak beharrezko langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du. Esleipendunak kontratua behar bezala burutzeko beharrezko diren zerbitzu guztiak egingo ditu, bestelako ordainik gabe, lan-bilera eta informazio-bileratara joatea barne.

Gainera, kontratuaren jabeak kontratatutako zerbitzuen inguruan ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpean gorde behar ditu, datu horiek konfidentzialak direlako. Kontratuaren jabeak Administrazioari eta eraginda ikusi diren pertsonen kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke. Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du. Kontratua bukatu ondoren, datu pertsonalak Udalari itzuliko dizkio.

11.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK ETA SUBROGAZIOA

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita dago.

Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

Gainera, bere kasuan esleipendunak bere gain hartuko ditu subrogaziorako eskubidea duten langileak, aplikagarri zaien Lan Hitzarmenak jasotzen duenaren arabera, eta subrogaturik geratuko da aurreko adjudikaziodunak zeuzkan laneko eskubideetan eta obligazioetan. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 120. artikuluan aurreikusitakoarekiko informazio gisa, atxikitako pertsonen datuak, langile hauei aplikatzen zaien Lan Hitzarmena eta lan baldintza ekonomikoen inguruko informazioa jasoz agiri honetako **I. ERANSKIN**-ean.

Subrogazio eskubidea dela eta, esleipendunak eranskin horietan zehazturiko langileen subrogazio eskubidea eta lan baldintza guztiak (eranskinean zehazturiko soldatak, eskubide ekonomikoak eta bestelako eskubide berak) errespetatu beharko ditu, betebeharrak horiek SPKLTB-eko 118. artikulua baita **kontratuaren exekuzio baldintza berezi gisa** zehaztuz.

Enpresa berri bati esleituko balitzako kontratua, hau esleitu ondoren, zerbitzuari utzi dion enpresak ondoko datuei buruzko langileen ordezkarien ziurtagiria bidaliko dio: langilearen izena, jaioteguna, familiako prestazioen onuradun kopurua, jasotzen duen edozein motako laguntzen zenbatekoa, antzinatasuna, Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egoteari buruzko ziurtagiria, TC1



Usurbilgo Udala

eta TC2 kotizazio agirien fotokopia, proportzozko zatien likidazioen agiriak; enpresa esleipen hartzaile berriaren esku jarri beharko ditu, baita ere, aurreko agiri guztiak egiaztatzeko beharrezko irizten dituen dokumentuak ere.

Era berean, emakidaduna soilik izango da bere langileen aurrean dituen soldata betebeharrei erantzungo diena, eta baita Gizarte Segurantzari dagozkionei ere, eta Usurbilgo Udalak ez du kontzeptu horietan inongo erantzukizunik izango.

Usurbilgo Udalak kontrola egin ahal izateko, eta horrek berekin inolako erantzukizunik bere gain hartzea ekartzen ez duela, esleipendunak egiaztatu beharko du, erakundeak hala eskatzen duen bakoitzean, goiko paragrafoan aipatutako betebeharrak guztiak bete dituela, eta Usurbilgo Udalaren eskura jarriko ditu betebeharrak horiei dagozkien agiri eta egiaztagarri guztiak.

Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribatutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukanbeharrekin. Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein kasutan, beti entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebeharrak bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabe baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enpleguaren eta enplegatuaren arteko kontratu loturak dakartzan eskubide eta betebeharrak guztiak.

12.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN

Kontratuaren jabea izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalteen eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Kontrata betetzean, esleipendunak bere jardueragatik eragindako kalteei erantzuteko aseguruia eduki beharko du, kontratu honen egikaritzaren baitako arriskuak, kontratua burutzen duen lokalari eragin ahal dizkion kalteak eta kontratua aurrera eramaten duten langileek jasan ditzaketen arriskuak estaltzen dituena. Gutxieneko kapitala **600.000 eurokoa izango da, 300.000 euroko azpi-muga batekin**, gerta litezkeen kalte guztiak bere gain hartzeko, kontratuak iraun bitartean.



Usurbilgo Udala

Baldintza hau frogatzeko, jatorrizko poliza eta primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 223. artikulua argitaratu, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.

Aseguratutakoak izango dira Usurbilgo Udala, esleipenduna eta bere mendeko pertsonak, azpikontratatutak, eta oro har, zentroen ustiapenean parte hartzen duten pertsona guztiak. Esleipendunak egindako aseguruak, zentroa ustiatzearen ondorioz gerta litezkeen arrisku guzti-guztiak estali behar ditu. Esleipendunak, edozein kalte edo galera ekiditen saiatuz egin behar du zentroaren kudeaketa.

Baina, hala ere, ustiapenak eragindako arrazoiaren baten ondorioz kalte edo galera horiek gertatzen badira, bidezkoak gerta litezkeen kalte-ordainak emakidadunak ordainduko ditu, izan ere Usurbilgo Udala erreklamazio eta erantzukizun orotatik libre egongo baita gai honetan.

13.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direlako Udalak kontratua aldatzea izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.

Aurreikusitako aldaketak

Zentroko zerbitzu egun kopurua, ordu kopurua edo plaza kopurua aldatu ahal izango du, premien arabera beharrezkoa bada.

Zentzu honetan, lizitatuzaileei zera jakinarazten zaie: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Usurbilgo eguneko zentroan hitzarturiko plazen kopurua aldatzea aurreikusi du, jaiegunitako plazetan 6 plaza gehituz, eta hori 2017ko urriaren 31ean onartzea eta 2017ko azaroaren 1etik aurrera ondorioak izatea. Dena den, oraindik ebatzi gabe dago eta hortaz udalak ezin ditu une honetan plaza ziurtzat jo.

14.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

SPKLTB-eko 118. artikulua baitan **kontratuaren exekuzio baldintza berezia da.**

Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik jardueran parte hartuko duten langileek zera egiaztatzea beharko dute:

- Koordinatzaileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila
- Gainerako zuzeneko langileek Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko parteak)



Usurbilgo Udala

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Usurbilgo Udalak erabakitako froga egitea.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Zerbitzu hizkuntza, erabilera herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.

Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Era berean, udaletik jasotzen diren idatziak euskaraz jasoko ditu enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Gizarte Ongizate zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena.

15.- AZPIKONTRATATZEA

Eguneko Zentroko eraikinak sukaldarik ez duenez, plegu teknikoetan jasotako zerbitzuetatik otorduen zerbitzua soilik azpikontratatu ahal izango da.



Usurbilgo Udala

16.- KONTRATUA AMAITZEA

Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorritik eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo baldintza administratibo edo teknikoak betetzen ez badira, edo eta Kontratuen Legearen 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik. Ildo horretan, erabiltzaileei zuzeneko arreta ematearekin lotutako prestazioak kontratuaren funtsezko prestaziotzat joko dira.

Halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

17.- KONTRATUA INDARGABETZEAREN ONDORIOAK

Kontratua indargabetzeak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 225. eta 288. artikuluetan zehaztutako ondorioak izango ditu.

18.- ITZULKETA

Kontratuaren iraupena amaitzen den egunaren biharamunetik hasita hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren titularrak Usurbilgo Udalaren esku utzi beharko ditu kontratua betetzean eraginda geratzen diren ondasun guztiak, eta bere aginduz, eta ohartarazpen edo errekerimendurik egin gabe, ondasunak ostentzea erabakitzeko eta gauzatzeko ahalmena onartuko da, baldin eta zehaztutako epea amaitutakoan itzulketa egin ez bada.

Erabilerarako lagatutako guztia itzuli beharko da (baldintza teknikoaren eranskinean inbentariatuak higiezinak eta ekipamenduak, hain zuzen ere kontratuaren barne egongo direnak).

Esleipendunak ondasunak zaintzeko eta mantentzeko betebeharrak orokorra eta Usurbilgo Udalak ikuskatzeko duen ahalmena eragotzi gabe, itzulketa egiteko, kontratua amaitu baino lehenagoko 3 hilabeteko trantsizio epe bat zehaztu da; epe horretan, udalak teknikari bat izendatuko du, epe horretan ondasunen egoera egiaztatuko eta zainduko duena, eta egoerak bat etorri beharko du jasotako zerrendan adierazitakoarekin.

19. BAHITZEA

Zerbitzu publikoa ondo ematea arriskuan jartzen duen izaera larriko arau-haustean eroriz gero kontzesionarioa, aldatu edo gauzatzeko agindua desobeditzea barne, kontzesioa bahiketa deklaratu ahal izango du Udaltzat, behin behinekoz aseguratutako zerbitzua edo zuzenean kontratua hausteko, SPKLTB-eko 285. artikuluen baitan.



Usurbilgo Udala

Udalbatzaren akordioa kontzesionarioari jakinaraziko zaio eta, jarri zaion epean akatsa zuzendu ezean, bahiketa gauzatuko da.

Edozelan ere, benetan kalte egindako gaitz-kalteak ordainduko dizkio kontzesionarioak udalari.

Bahiketaren arabera, Administrazioa zerbitzuaren funtzionamenduaz arduratuko da zuzenean, eta hartarako kontzesionarioaren pertsonala eta materiala erabiliko ditu, zerbitzua emateko baldintzak aldatu ahal izan gabe.

Helburu horrekin, kontu-hartzaile tekniko bat izendatuko du Udalbatzak, eta osorik edo zati batean enpresaren zuzendaritzakoak ordezkatuko ditu.

Kontzesionarioaren kontura eta arriskuz egingo du ustiaketa; bahiketa bukatutakoan, gastu denak ordaindu ostean gertatzen diren saldo aktiboak emango zaizkio kontzesionarioari, bai eta kontu-hartzailearen hartzekodunak ere.

Bahiketa aldi bateko izango da, eta gehienez ere ez du iraungo urte baino gehiago, ezta kontratua bukatzeko geratzen den epearen herena ere.

20. ERRESKATATZEA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 286.b) artikulua eta Toki Erakundearen Zerbitzuen Araudiaren 137.5 artikulua arabera, erreskatatuz gero udalak kontratua interes orokorrak daudelako kontzesioz zerbitzua kudeatzen jarraitu nahi ez duelako, udalak erabakitako alde-bateko erreskate honen kalte ordaina Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 288.4 artikuluan aurreikusitako terminoetan kalkulatu da.

21.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udalak, administrazio-kontratugile gisa, eskubide hauek izango ditu:

- Zerbitzua behar bezala emateko komenigarritzat jotzen dituen jarraibideak eta aginduak ematea.
- Lanen kalitatean, kantitatean, denboran edo lekuan aldaketak agintzea, baldin eta interes publikoak horrela eskatzen badu.

Kontratazio organoak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 210 artikulua arabera, hurrengo eskumen hauek dauzka:

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
- c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea. Edozein kasutan, entzunaldia emango zaio kontratistari, eta jarraitu beharko dira azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuak onartutako



Usurbilgo Udala

Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategineko 211 artikulua aurreikusten dituen tramiteak.

Udalak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako pertsonen bitartez.

Kontratua interpretatzeko, aldatzeko, amaituzat jotzeko edo horren ondorioak zehazteko kontratazio-organismoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

22. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

a) Proposamenaren balio teknikoa: gehienez 46 puntu (B gutun-azala) *gehienez 100 orri*

Orrialde kopurua ezin izango da bertan zehazturikoa baino altuagoa izan, bestela eskaintza lizitaziotik kanpora utziko da. Gainera, hemen zehazturiko irizpideen ordena errespetatu beharko du aurkezturiko eskaintzak.

Gutxienez atal honen puntuen erdia gutxienez eskuratu beharko da lizitazioan aurrera egiteko, gainditzen ez duten eskaintzak alde batetara utziko dira, lizitaziotik kanpo.

- 1.- Zerbitzuaren deskribapen eta kokapen orokorra: gehienez 1 puntu
- 2.- Zerbitzuaren ustiapen proiektua, azterketa ekonomiko finantziarioa barne: gehienez 4 puntu
- 3.- Lagatako eraikinaren kudeaketa: gehienez 3 puntu
 - Eraikinaren mantentze proposamena
 - Hondakinen Kudeaketa
 - Ingurumen arloko neurriak
- 4.- Eman beharreko zerbitzuen kudeaketa proposamena: gehienez 20 puntu
 - Lanaren jarraipenerako mekanismoak: gehienez 2 puntu
 - Zerbitzuen kudeaketa proposamena: gehienez 16 puntu
 - Berdintasun eta genero irizpideak zerbitzuan: gehienez 2 puntu
- 5.- Usurbilgo herriaren ezaugarrietara egokitutako proposamena izatea: gehienez 5 puntu



Usurbilgo Udala

6.- Giza baliabideen kudeaketa: gehienez 10 puntu

- langileen organigrama eta antolaketa
- langileen ordezkapenen kudeaketa,
- etengabeko prestakuntza programa
- barruko koordinazio mekanismoak

7.- Kanpo koordinazio mekanismoak: gehienez 3 puntu

- Administrazioarekiko
- Eguneko zentroko zerbitzu propioak ez diren bestelako zerbitzuekiko
- Sendiarekiko

b) Diru-eskaintza: gehienez 42 puntu (C gutun-azala)

Laneguneko prezioa (BEZ-ik gabe): gehienez 32 puntu

Orduko gehienezko prezioa (BEZ-ik gabe) 50,00 euro izango dira. Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea. Eskaintza baten beherapena aterako da honela:

-Ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea kalkulatz honako formularen arabera: $100x (1-\text{proposamena/lizitazioa})$.

“Beherapen” handiena duen proposamenari “A beherapena” esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango diogu, hau da, 32 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira.

$32 - (A \text{ beherapena} - B \text{ beherapena})$ eta zero (0) puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

Jaieguneko prezioa (BEZ-ik gabe): gehienez 10 puntu

Orduko gehienezko prezioa (BEZ-ik gabe) 52,00 euro izango dira. Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea. Eskaintza baten beherapena aterako da honela:

-Ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea kalkulatz honako formularen arabera: $100x (1-\text{proposamena/lizitazioa})$.



Usurbilgo Udala

“Beherapen” handiena duen proposamenari “A beherapena” esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango diogu, hau da, 10 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira.

$10 - (A \text{ beherapena} - B \text{ beherapena})$ eta zero (0) puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKLTB-ko 152 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.

c) Lan baldintzak: 9 puntu (C gutun-azala)

Adineko eguneko zentroen zerbitzuan bere baitan eskulanaren garrantzia eta langileen egonkortasun eta lan baldintza egokiek zerbitzuaren kalitatean zuzenki eragiten dutela kontuan izanda eta kontratu honen bidez enplegu egonkor eta kalitatezkoaren sustapena bultzatu nahirik, zentroko langile guztiek lan baldintza duin eta berdinak izan ditzaten, klausula sozial gisa enpresak egon daitezkeen langile berriei ere subrogaturiko langileen lan baldintza berdinak (plegu administratibo hauetako I. Eranskinean jasotako moduan) aplikatzea baloratuko da:

Plegu administratiboetako I. Eranskinaren arabera, subrogazio eskubidea duten langileei une honetan aplikatzen zaizkien lan baldintza berdinak (eranskinean zehazturiko baldintza guztiekin) egon daitezkeen langile berriei ere aplikatzea: 9 puntu

*Atal honetan lan baldintza berdinak aplikatzea eskaini eta 9 puntu horiek eskuratuz gero, baldintza hori SPKLTB-eko 118. artikulua baita **kontratuaren exekuzio baldintza berezia da.***

d) Zerbitzuan egindako hobekuntzak: gehienez 3 puntu (B gutun-azala) gehienez 5 orri

- Zerbitzu osagarriak: gehienez 2 puntu
- Baliabide tekniko eta ekipamendu osagarrietan hobekuntzak: gehienez 1 puntu

23. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi Iparragirre, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Ongizate arloko Zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontu-hartzailea, Bokal gisa
5. Maria Salsamendi Luengo, Ongizate arloko Teknikaria, Bokal gisa
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa



Usurbilgo Udala

24. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua xedatzen dituen debeku kasuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 28. klausulan ezarritako baldintzen arabera egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez parte hartu ahal izango dute, horretarako emandako ahalaren bidez. Kontratatzeko aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lizitatuzaileen helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzeneko harremana duten jarduerak egitea, eta hori gauzatzeko, giza baldintzak eta beharrezkotzat jotzen diren baldintza materialak izan beharko dituzte.

25. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea baldintzatan aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Erregistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. Usurbil
ORDUTEGIA: 8etatik 14:30etara

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatuzaileen profilean argitaratuko da honako atari informatiko edo webgunean: www.usurbil.eus

Eskaintzak arreta publikorako zehazturiko leku eta ordutegian aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatuzaileen Profilean argitaratu eta **15 egun naturaleko epean**, hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak posta, telefax edo bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedatutako moduetan.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresariak bidalketa data frogatu ahal izango du Posta bulegoan, eta kontratazio organoari eskaintzaren igorpena jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, espediente zenbakia, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lizitatuzaileen izena idatziz jasoz.

Aipaturiko telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkariak lizitaturiko dilijentzia bidez egingo da. Lizitazio iragarkian zehazturiko epea amaitu ondoren kontratazio organoak proposamenen bat jasoko balu bi ukanbehar horiek bete gabe ez da proposamen hori onartuko. Edonola ere, epe horretatik 10 egun igarota aipaturiko agiriak ez balira jasoko hau ere ez da onartuko.

Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen erabilerak gainera azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak bere hamaseigarren xedapen gehigarrian zehazturiko ukan-beharrak bete beharko ditu. Lizitatuzaile



Usurbilgo Udala

bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, halaber, aldi baterako enpresa proposamenik aurkeztu banako gisa eskaintzarik aurkeztu duen kasuetan edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagotan egonez gero. Arau hauen urraketak berak aurkezturiko eskaintza guztiak ez onartzea eragingo du. Eskaintza aurkezteak plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

26. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak itxitako 3 gutun-azaletan aurkeztuko dira.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, helbidea, telefono zenbakia eta proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak idatziko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalak sinaturik egon behar dute eta jakinarazpenetarako helbidea zehaztuz.

Halaber, gutun-azalaren izendapena eta honako aipamena jasoko da: **“ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”**.

Gutun-azalen izendapena honako hau da:

- «A» gutun-azala: Agiri Administratiboak.
- «B» gutun-azala: Balore judizio baten arabeko balorapenerako agiriak.
- «C» gutun-azala: Eskaintza Ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikatzeko agiriak.

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriek originalak edo legeztaturikoak izan beharko dute, indarrean dagoen legediarekin bat.

Gutun-azal bakoitzaren barruan hurrengo agiriak sartuko dira:

“A” GUTUN-AZALA **AGIRI ADMINISTRATIBOAK**

a) Lizitatzailerearen Ardurapeko Aitorpena, Administrazioarekin kontratatzeke legez ezarritako baldintzak betetzearena.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:



Usurbilgo Udala

ARDURAPEKO AITORPEN EREDUA

Izena:..... Helbidea: NA zk., telefonoa..
....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edo
.....ren ordez, helbidea
..... eta NA edo IFK
(pertsonea fisikoa edo juridikoa izan), **ADINEKO
PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA
ZERBITZUA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO** Usurbilgo Udalak deitutako prozedura irekia
ezagutu eta

BERE ERANTZUNKIZUNPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:

LEHENENGO. Lizitatzailleak Administrazioarekin kontratatzeke legalki eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta esleipedun izatea proposatuko balitz, kontratazio organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkeztuko lukeela, esleipenaren aurretik, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearen, 3/2011 E.D. Legegilearen 146 artikulua dionari jarraiki. Horrela, esleipenaren aurretik, pertsonalitate juridikoa, ordezkari, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkeztu beharko duela.

BIGARRENIK. Konpromisoa hartzen duela administrazio pleguetako I. Eranskinen langileak subrogatzeko eta eranskin horretan adierazitako lan baldintza guztiak (aitorturiko hobekuntzak barne, lan hitzarmenean jasota egon ez arren) mantentzeko.

HIRUGARRENIK. 5.000 euroko behin-behineko bermea jarri dudala eta gutun-azal honetan frogagarria sartu dudala.

LAUGARRENIK. Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela:.....

Eta horrela jasota geratu dadin, honako aitortpen hau sinatzen dut.

....., 2017ko aren(a)
Izenpea

"B" GUTUN-AZALA **BALORE JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO AGIRIAK**

Balore judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideei dagozkien agiriak barne hartuko ditu.

"C" GUTUN-AZALA



Usurbilgo Udala

ESKAINZA EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATZEKO AGIRIAK

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

Izen-
abizenak.....Helbidea
..... Posta kodea, NAN zenbakia,
Telefonoa, Ordezariaren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-
abizenak NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa
denaren arabera), **ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN
ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO** prozedura irekiko
espedientea ezaguturik, adierazten dut kontratuaren oinarri diren Pleguak ezagutzen ditudala eta
osoki onartzen ditudala, lizitazioan parte hartuz eta honako hau aitortuz:

- Ordezkatzen duen enpresak bere irekiera, instalazio eta funtzionamendurako indarrean
dagoen araudiak ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

- Bere gain hartzen duela kontratua gauzatzeko konpromisoa ondorengo prezioetan:

-..... €/egun eta plazako astegunetar. (BEZ gabe), %.....BEZ-aeuro, guztira BEZ
barne euro)

-€/ egun eta plazako asteburu eta jaiegunetan (BEZ gabe), %.....BEZ-aeuro,
guztira BEZ barne euro)

- Plegu administratibo hauetako I. Eranskinean subrogazio eskubidea duten langileen lan baldintza
berdinak aplikatuko dizkiet egon daitezkeen langile berriei: bai edo ez (zehaztu).

....., 2017ko aren(a)

Izenpea

27. AGIRIAK KALIFIKATZEA

Kontratazio Mahaiaren bilkura publikoen deialdiak udal web orrian (www.usurbil.eus) argitaratuko
dira.

Kontratazio Mahaia osatuko da eta "A" gutun-azala ireki eta bertan jasoriko agiri administratiboak



Usurbilgo Udala

kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa izanez gero, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du lizitatuak aurkezturiko agirietan ikusi diren akats edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Ondoren, judizio balore baten arabera irizpideak jasotzen dituen "B" gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu jende aurrean. Proposamen horien irakurketaren ondoren, Mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu, Pleguetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera balorapena egin ahal izateko.

Berriz ere Kontratazio Mahaia bildurik, judizio balore baten arabera irizpideen ponderazioa ezagutaraziko da. Ondoren "C" gutun-azalak irekiko dira jendaurrean.

Judizio balore baten arabera diren irizpideen balorapenaren (B gutun azala) eta ponderazio automatikokoak diren irizpideen (C gutun-azala) balorapenaren ondoren, Kontratazio Mahaiak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatuak proposatuko du.

28. AGIRIEN ESKAERA

Kontratazio-organuak proposamen ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatuari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean aurkeztu ditzan. Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (originalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatuak bere izenean jardunez gero eta hala badagokio, Jarduera Ekonomikoen zergan dagokion atalean alta emanda egotea.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatuak pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena emanda dagoela eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.
- Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkarte eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi



Usurbilgo Udala

baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen duen agiria;

- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan (hau da, adinekoentzako eguneko zentroak kudeatzen), gutxienez urteko 250.000 eurotakoa.
- Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruia 300.000 eurotakoa

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Bi puntu hauek ziurtatzen dituzten agiriak aurkeztuz:

- *Azken 5 urteetan emandako adineko pertsonentzako zentroen kudeaketa zerbitzuak*, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, datak eta destino publikoa edo pribatua, eta kudeaketa egokia izan dela, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. Azken 5 urteetan gutxienez adineko eguneko zentroak kudeatzen lizitazio honen antzeko 5 zerbitzu (bost urtez edo urtebeteko bost zerbitzu edo pareko beste antzeko kaudimena) eman dituztenek ulertuko da kaudimena dutela, hau da, bost urteko esperientzia eguneko zentroen kudeaketan.

- Titulazioak:

- Koordinatzailea:

- gizarte langile diplomatua edo graduduna (titulua)
- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila

- Zaintzako langileak:

- erizaintza laguntzaile, osasun arloko teknikari laguntzaile titulua, gerokultore edo mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte eta osasun arreta ematea duen ziurtagiri profesionala duena edo baliokidea.
- Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko parte)

- Fisioterapeuta:

- fisioterapian diplomatua edo graduduna
- Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko parte)

- Terapia okupazionala eskaintzen duenak

- Terapeuta okupazionalan diplomatua edo graduduna
- Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko parte)

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortzea aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailerari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.



Usurbilgo Udala

g) Aseguru Poliza eta ordain-agiria.

h) Langileek plegu administratibo eta teknikoetan zehazturiko ukanbeharrak betetzen dituztenaren gainerako titulu eta ziurtagiriak (langile zerrenda, hizkuntz eskakizuna, ...).

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatuak ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, a), b) eta c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. **Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.**

Administrazioarekin kontratatzeko eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

29. BERMEA

Behin Behineko bermea

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 103. artikulua baita, lizitatuak 5.000 euroko behin behineko bermea ezarri beharko dute, kontratua esleitu arte beraien eskaintzak mantentzeaz erantzungo duena.

Behin behineko bermea automatikoki amaituko da eta lizitatuak itzuliko zaie, behin kontratua esleitu ondoren. Behin betiko bermearen atxikipena kasu hauetan burutuko da: Esleipendunari, behin betiko bermea osatu arte eta esleipenaren aurretik bere eskaintza arrazoirik gabe kendu duen lizitatuak.

Esleipendunak behin behineko bermearen kopurua behin betiko bermerako erabili ahal izango du edo bestela behin betiko berme berri bat ezarri ahal izango du. Azken kasu honetan, behin betikoa jartzearekin batera itzuliko zaio behin betikoa.

Behin betiko bermea

Ekonomikoki abantaila gehien dituen proposamena aurkeztu duen lizitatuak hasierako epearen esleipen kopuruaren %5eko bermea eratu izana ziurtatu beharko du, Balio Erantsiaren Zerga kendurik.

Bermea ez da itzuli edo deuseztatuko berme epea amaitu eta kontratua modu egokian gauzatu arte.

Berme honek Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 100. artikulua jasotako



Usurbilgo Udala

kontzeptuengatik erantzungo du, kontratua amaitzetik 6 HILABETEKO epean.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak. Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

30. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Eskaturiko agiriak jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du hurrengo BOST EGUN BALIODUNETAN. Esleipena hautagai edo lizitatzailer guztiei jakinaraziko zaie, eta aldi berean, Kontratatzaileraren Profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena hartzaileak jaso izana ziurtatzen duten edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da. Bereziki, lizitatzailer edo hautagaiek haien proposamenetan zehazturiko helbide elektronikora bidali ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 16. xedapen gehigarria, amaierako 3. xedapena eta urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legearen 41. artikulua araber. Jakinarazpena ukatutzat hartzeko epea 10 EGUN NATURALEKOA izango da, urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legeko 43.2 artikulua araber.

Kontratua esleitzen ez bazaio eskaintza ekonomikorik onuragarriena egin duen enpresa lizitatzailerari hark ez dituelako bete baldintzak, beste deialdi berri bat egin baino lehen, administrazioak beste errekerimendu bat bidali ahal izango dio/die hurrengo lizitatzailerari edo haren atzetik datozei, betiere eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkerari jarraituz, eta halako kasuan, enpresa lizitatzailerak bost egun baliodun izango du lehenago adierazitakoa betetzeko.

31. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa esleipenaren jakinarazpena jaso eta 15 egun balioduneko epean egingo da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

32. EMAKIDADUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1.- Kontratua esleipendunaren arrisku eta menturaz gauzatuko da. Usurbilgo Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunak bere gain hartutako eginkizunetan, ez eta esleipendunak edo honen zerbitzura dauden langileek hirugarren pertsonari eragindako kalte edo galeretan ere.

2.- Bere zerbitzura jarduteko kontratatzen duen pertsonala, eta honen prestakuntza. Esleipendunaren bakarren ardurakoa izango da kontratatutako pertsonala. Usurbilgo Udalak ez du



Usurbilgo Udala

inolako harreman juridikorik izango esleipendunaren zerbitzuan ari diren langileekin, ez agiri honen xedea den kontratua indarrean dagoen bitartean, ez eta kontratua amaitzen denean ere.

3.- Esleipendunak nahitaez bete behar ditu lan arloan eta Gizarte Segurantzari nahiz laneko segurtasun eta higienerari dagokienez indarrean dauden xedapenak; eta esleipendunak arau horiek ez betetzeak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Administrazioari. Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean ematen diren arauak bete beharko ditu esleipendunak.

4.- Esleipendunak higiene, garbitasun eta kontserbazio egoera onean mantendu beharko ditu obra, instalazio eta altzari guztiak. Era berean, kasuan kasuko zerbitzua emateko beharrezkoak diren lanabes eta tresneria berritu beharko ditu eta honi dagokion gastua bere konturakoa izango da.

5.- Emakidadunaren iritziz zerbitzu hobe eta eraginkorragoa emateko komenigarriak diren hobekuntzak egingo ditu obra, instalazio eta altzarietan, hobekuntza horiek exijigarriak ez izan arren. Kasu honetan ere, horren ondoriozko kostua bere kargurakoa izango da. Hobekuntza horiek egiteko, dena den, Usurbilgo Udalaren baimena beharko da, eta honek eskuratuko ditu ustiapen epea amaitzen denean. SPKLTB-eko 64.2 artikulua araberaz zerbitzura beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak jarri beharko ditu.

6.- Enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuei lotuta ezagutu ditzakeen datuak isilpekoak direla ulertzen da, eta horien identitatea nahiz sekretua gorde beharko ditu. Esleipendunak, lanbide-iziltasuna hausteko eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkie udalari eta ukitutako pertsonari.

7.- Esleipendunak inolako ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe eman beharko ditu kontratua behar bezala garatzeko eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak; esate baterako, lan bileretara edo informazioa emateko bileretara joatea, elkarrizketak egitea, eta abar.

8.- Esleipendunak ordaindu egin beharko ditu zerbitzua emateko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galerak. Zerbitzua ematean hirugarrenei eragin dakiekeen kalteak emakidadunaren kontura ordainduko dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuan xedatutakoaren arabera. Emakidadunak erantzungo du emandako zerbitzuen kalitateaz eta egindako hutsegiteez, halakorik izanez gero. Gerta daitezkeen akatsak Administrazioak emandako aginduen edo ezarritako baldintzen ondorio zuzenak direnean bakar-bakarrik geratutako da erantzukizunetik salbuetsita.

9.- Emakidadunaren ardura izango da beti, zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratibo guztiak lortzea; eta horiek, bere izenean eskatuko ditu.

10.- Ematen diren zerbitzuak normaltasun osoz emango dira segurtasun, osasun eta higienerari dagokienez; beraz, erabiltzaileentzako gogaikarriak, kaltegarriak edo arriskutsuak izan daitezkeen arazoak saihestu egin beharko dira beti, indarrean dagoen eta aplikagarria den legeriak ildo honetan ezarritakoa betez uneoro.

11.- Obrak, instalazioak eta makineria ikuskatu ahal izango dira; eta Usurbilgo Udalak, gai honen inguruan adierazitakoa bermatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen lanak egitea agindu ahal izango du. Halakorik gertatuz gero, lan horiek esleipendunak egin beharko ditu ezarritako epean; eta bestela, Administrazioak gauza ditzake zuzenean, esleipendunaren kontura eta kargura.



Usurbilgo Udala

12.- Emakidadunak txosten bat emango dio udalari, honek erabakitako maiztasun eta formatuan. Eta txosten horretan xehetasun osoz adieraziko ditu zentroaren ustiapenari lotutako datu eta estatistikak, hala nola gertatutako gorabeherak, halakorik izanez gero.

13.- Esleipendunak aparteko kasuetan bakarrik eten ahal izango du zerbitzu ematea; hau da, ezusteko kausa saihestezinak gertatzen direnean, edo segurtasun arrazoiek edo larrialdiko konponketek hala eskatzen dutenean. Halakorik gertatuz gero, esleipendunak hartu beharko ditu kasuan kasuko larrialdiko neurriak, edo horrelakorik izan ezean, zerbitzuaren normaltasuna berreskuratzeko ezartzen zaizkionak. Horrek, dena den, ez dio kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik emango.

14. Kontratuaren aldaketari buruz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 282. artikulua ezarritakoa aplikatuko da.

15. Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren arabera, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

33.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Esleipendunak emango duen zerbitzua, zerbitzu publiko gisa kalifikatua dago; beraz, Usurbilgo Udalak honako eskubideak izango ditu:

- a) Interes publikoak hala agintzen duenean, kontratuan aldaketak egitea; eta besteak beste, emakidaren helburu diren prestazioen kalitatea, kantitatea eta bestelako ezaugarriak aldatzea.
- b) Esleipendunaren kudeaketa fiskalizatzea. Horretarako, zerbitzua bera, emakidaren xede diren ondasunak eta berorrek lotutako dokumentazioa ikuskatu ahal izango ditu; era berean, prestazio egokia mantentzeko edo leheneratzeko bidezko aginduak eman ahal izango ditu.
- c) Zerbitzua emateko lana aldi baterako bere agin hartzea, baldin eta emakidadunak ez badu zerbitzua ematen edo ezin badu eman, berari lepora dakizkiokeen edo ez dakizkiokeen arrazoiak direlarik ere.
- d) Zerbitzua berriro bereganatzea, honako agiri honetan aurreikusitako baldintzetan.
- e) Zerbitzua ezabatzea.
- f) Emakidadunari dagozkion betebeharrak betetzen direla begiratu eta kontrolatzea. Horretarako, zentroak eta xede honetarako esleipendunari eskatzen dizkion agiri guztiak ikuskatu ahal izango ditu.
- g) Zentroan eman beharreko zerbitzuaren ustiapena bere gain hartzea, kontratua indargabetuz gero.
- h) Zentroaren erabilera eta ustiapena kontrolatzea.
- i) Interes orokorreko aparteko egoerak konpontzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, zentroaren erabilpenari dagokionez.

Usurbilgo Udalak honako betekizunak izango ditu:



Usurbilgo Udala

- a) Emakidadunari behar duen babeseta ematea, zerbitzua egoki eman dezan.
- b) Emakidaren oreka finantzarioa mantentzea. Hori horrela, **bere aginduz zerbitzuan sartu beharreko aldaketak direla eta**, esleipendunaren ordainsaria gutxitu edo gastuak igotzen badira, bidezko kalte-ordain ekonomikoa emango dio emakidadunari.
- c) Emakidadunari dagokion kalte-ordaina ematea, zerbitzuaren kudeaketa zuzenean bereganatzeak eragindako kalte-galerengatik, baldin eta erantzukizun hori, emakidadunari lepora ez dakizkiokeen interes publikoko arrazoen ondorioz etorri bada
- d) Emakidadunari kalte-ordaina ematea, halaber, administrazioak emakida berreskuratu edota zerbitzua ezabatzen duenean.

34. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Kontzesionarioak egindako hutsegiteak santzionatuko dira honela:

- Hutsegite arinak 60tik150 eurotako isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 15 hutsegite eginez gero.
- Hutsegite larriak 150tik 300 eurotako isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 10 hutsegite eginez gero.
- Hutsegite larri-larriak 301tik 450 eurotako isunaz santzionatuko dira eta behin betiko bermea galduko du, eta zenbateko beraz beste bat jarri beharko du kontzesionarioak, edo kontratua hautsiko da, hutsegite larri-larritzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero.

Santzioez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio kontzesionarioak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, e.a.i dagokien zenbatekoaren truke.

Ezarritako isunen kopurua hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik, edo jarritako bermetik.

a) HUTSEGITE ARINAK

Hutsegite arinak izango dira:

- a.- Atzeratzea kontzesionarioa bere obligazioak bete behar dituenean.
- b.- Udalak emandako jarraibideetan desobedientzia arinak.
- c.- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, lokalak eta tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.
- d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.
- e.- Estatutako datuak eta azterketan ematean, atzeratu edo akatsak izatea, enpresa egotz dakizkiokeenak.
- f.- Hainbat arrazoi dela-eta zerbitzuan gerta litezkeen aldaeren komunikazio falta.



Usurbilgo Udala

g.- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, beti ere atzeratze hori 24 ordutik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.

h.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea.

b) HUTSEGITE LARRIAK

Hutsegite larriak izango dira:

a.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

b.- Bere langileriaren portaeraren kontroleko enpresa egitekoan zabarkeriaz jokatzea, erabiltzaileri buruz nahiz udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki kontratu hau arautzen dutenak, hala nola tarifa kobratzean akatsak, e.a.

c.- Kontzesionarioaren jardunak eraikinaren baliogalera ekartzen duenean.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala erabiltzen ez denean.

e.- Kontzesioak helburutzat ez duen jarduera bat egitea.

f.- Jartzen den ordutegia ez betetzea.

g.- Kontzesionarioaren oinarritzko betebeharren arau hauste larria.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Orrietan adierazitakoez gainera, edozein baldintza ez betetzea kontzesionarioak edo, haren eskaintzan, eta bereziki kontzesionarioaren obligazioak ez betetzea, orri honetan hutsegite arin edo larri-larri moduan tipifikaturik ez daudenean.

c) HUTSEGITE OSO LARRIAK

Hutsegite oso larriak izango dira:

a.- Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea orri honetan ezarritako epean ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

b.- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoko aldi, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan, arrisku larria eta zuzenekoa eragiten dutenean.



Usurbilgo Udala

d.- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, haiek ezarrita dituzten legez edo arauzko egitekoak burutu ditzaten galarazteko.

e.- Titulaziorik gabe edo lanbide trebetasunik gabe zerbitzu publikoa egitea.

f.- Zerbitzua bertan bera utzi edo etetea, kontzesioaren epea amaitu gabe egonda, Administrazioaren baimenik gabe.

g.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari adskribatutako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.

h.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

35. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa du eta bere prestaketa, esleipena, ondorioak eta iraungitzea plegu honetan jasotakoek zuzenduko dute, eta bertan aurreikusten den ez denerako aplikagarri izango dira azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onaturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta Administrazio Publikoko Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, azken hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartzean indarreangotasuna duen heinean. Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta hauen faltan, zuzenbide pribatuko arauak.

Horretaz gain, esleipendunak indarrean dauden arau sektorial guztiak bete beharko ditu.

Aipatutako arau horiez gain, araudi horretan egiten diren garapen eta aldaketak ere bete beharko ditu nahitaez, eta baita onartzen diren eta aplikagarriak diren arau berri guztiak ere.

Halaber, Usurbilgo Adinekoen Eguneko Zentroak honako berezko araudiak ditu eta hauek aplikatuko dira, gerora onaturiko araudi sektorialaren edo Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako irizpideen aurka ez baldin badoaz:

- Eguneko Zentroko funtzionamendurako araudia (GAO 2003-11-27)
- Eguneko Zentroaren zerbitzu eta funtzionamendu erregelamendua (GAO 2008-01-28)

36.- HELEGITEAK

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak kontratazio-organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera.



Usurbilgo Udala

37.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetako aldean artean sortu litezkeen eztabaidak ebazteko ardura Administrazioarekiko Auzi-prozesuko Ordena izango da eskuduna, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 21.1 artikulua araber.

I. ERANSKINA

-Subrogatzeko eskubidea duten langileak eta aplikatzen zaizkien lan baldintzak-